



CONSEIL DE DEVELOPPEMENT DU PAYS BASQUE
IPAR EUSKAL HERRIKO GARAPEN KONTSEILUA

SO!

gazteen etxebizitzak

logement des jeunes

Nola egiten diote aurre gazteek, batez ere Ipar Euskal Herriko barnealdean, gero eta handiagoa den etxebizitzaren krisiari?

Bizitegiari buruzko bere lanaren jarraipenean, Garapen Kontseiluak etxebizitza, gizarte eta ekonomia mailako eragileak, hautetsiak eta lurraldeko gazteak mobilizatu ditu egoeraren bilduma baten eraikitzeko.

Diagnostiko kolektibo horrek deiadarra jotzen du gazteek etxebizitza eskuratzeko dituzten zailtasunei buruz, eta agerian uzten ditu barnealdeko lurraldeetako desafio bereziak.

So ! Ipar Euskal Herriko gazteen etxebizitzari buruzko diagnostikotik gogoan atxiki beharrekoa; Garapen Kontseiluak 2022ko maiatzean argitaratu zuen diagnostiko hori, Euskal Herriko FJTrekin elkarlanean.

ETXEBIZITZEN KRISI OROKORRA

- Osasun krisiaren ondotik, lurraldeak **etxebizitza eskaeraren emendatze bortitz bati buru egin behar dio**, eta haien erabileren arteko **lehia handiago** bati (etxebizitza nagusiak, bigarren etxebizitzak, turismokoak).
- Ondorioz, etxebizitza eskasia handitzen ari da eta prezioek **emendatze orokorra** pairatzen dute, bai alokatzeko, bai erosteko.
- Paraleluki, Euskal Herriko etxebizitzaren parkeak **zaharkitua izaten segitzen du** eta bizilagunentzat **gainkostu energetiko handiak** ekartzen ditu.

GAZTEAK KRISIAREN PAREAN PREKARIOAGO

30 urtetik beherakoentzako traba bereziak:

- Diru sarrera ttipiagoak** eta **ezegonkorragoak**.
- Sartzeko baldintzak gogortzen** ari.
- Haien beharretarako desegokia** den eskaintza bat (azalera ttipiak bilatzea, epe motzera, denbora guti bilatzeko).
- Gazteek gehiagotan buru egin behar diote **"etxebizitza bikoitzaren" beharrari**, bereziki ikasleen eta sasoilarien kasuan.

Egunerokoan, "ahal bezalako" sistema:

- Gazteek ahal bezala egiten dute arazoari buru egiteko:** beren irizpideak apaldu, gurasoen etxean edo alokatze kolektiboan gelditu edo itzuli, kanpinean edo autoan lo egin...
- Mugitzen diren eragileak:** gizarteratzean (laguntza eta informazioa), "ordezko alokatzaileak" (enplegatzaileak edo aterpetzen duten formakuntza lekuak), higiezin agenten batzuen eskukaldiak.

EUSKAL HERRI BARNEALDEARI BEREZIKI SO

Baserialdeko lurraldeen garapenerako erronka bat:

- 📌 Gazteendako bizitegi eskasiak **tokiko erakargarritasun** eta **gizarteratze zailtasunak** handitzen ditu.
- 📌 Hori arriskutsua da lurralde horien **garapen ekonomiko, kultural eta sozialari begira**, besteak beste.

Lurralde bakoitzean, desafio bereziak:

- 📌 **Hazparne inguruan:** eskaera emendatzen ari da eta prezioak lehertzen. Ondorioz, langile batzuek ez dute beren kontratua luzatzen edo lehenago joaten dira...
- 📌 **Amikuze:** beharrak emendatzen ari dira, eta prezioak biziki gora egiten hasten, ikasle-langile anitz lanean eta ikasten ari diren eremu batean.
- 📌 **Kanbo inguruan:** laborantzako sasoilarien, baita gizarte eta medikuntza alorretako ikasle eta langileen behar handiak.
- 📌 **Garazi-Baigorri:** kezka handia merkataritza, ostalaritza eta sukaldaritza alorretan, sasoiako langileen kontratatzekeo (80 postu huts).
- 📌 **Zuberoa:** etxebizitzak lurraldeko gainerakoan baino zaharkituagoak dira, eta bizitegi guti daude, horrek langileen finkatzea oztopatzen du (50 lanpostu huts badirela estimatzen da).





CONSEIL DE DEVELOPPEMENT DU PAYS BASQUE
IPAR EUSKAL HERRIKO GARAPEN KONTSEILUA

Garapen Kontseiluak lurraldeko bizitza ekonomiko eta sozialeko 400 eragile baino gehiago biltzen ditu: herritarrak, erakunde sozio-profesionalak eta Euskal Herriko elkarte adierazgarriak.

Garapen Kontseiluak lurraldeko desafio handiei buruzko eztabaida publikoan parte hartzen du, eta bere ikuspegia eta proposamenak ekartzen ditu lurraldearen garapen edo antolaketa gai nagusiei buruz.

Euskal Herriko gobernantzaren eragile nagusietarik izan da 1994tik 2017ra eta, 2018az geroz, Euskal Hirigune Elkargoak bere politika publikoen laguntzeko eginkizuna eman dio. Ideia-laboretegia da; gizarte-berrikuntzaren zerbitzura dago eta lurralde-dinamika berriak sortzen laguntzen du.